



2018ko abendua

AURKEZPENA

Zikloteka bizikleta bidezko mugikortasunean espezializatutako dokumentazio-zentroa da, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Cristina Enea Fundazioak sortutakoa. 2016. urtean ireki zituen ateak Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxean, Donostian.

Buletin honetan interesekoak izan daitezkeen argitalpenak eta bizikleta bidezko mugikortasunarekin lotutako albisteak bilduko ditugu, baina horrez gain, zuen laguntasuna jasotzea ere nahiko genuke. Bizikleta bidezko mugikortasunari buruzko dokumentuak, bideoak, kartelak... badituzue edo haien berri baldin baduzue, guri helaraztea eskertuko genizueke.

Telefonoz deitzen badiguzue (943 453 526) edo mezu elektroniko bat bidaltzen baduzue (zikloteka@donostia.eus) gustu handiz erantzungo dizuegu, eta esku artean duzuen informazioa edo dokumentazioa nola jaso eta Ziklotekako dokumentu-funtsean nola txertatu adostuko dugu.

BIZIKLETAREN ALDEKO HIRIEN SAREA ETA ZIKLOTEKA

Gure aurreko Zikloberriak buletinean iragarri genuen bezala, Bizikletaren aldeko Hirien Sarea (RCxB) eta Zikloteka lankidetzat hitzarmen bat ari ziren lotzen, eta azkenean sinatu egin da, joan den azaroaren 30ean eta RCxB Batzarraren testuinguruan. Era horretan, Ziklotekak Bizikletaren aldeko Hirien Sareko kide guztietara hedatuko ditu bere zerbitzuak; egun, Sareak 116 bazkide ditu, Espainiako 550 hiritakoak.



DOKUMENTUEN AUKERAKETA

Gaur egun, 3.100 dokumentutik gora bilduta ditugu gure datu-basean. Jarraian duzue bildutako nobedade nagusien erreferentzia labur bat eta dokumentuen aukeraketa:



De l'amor i d'altres viatges

F. Xavier Corominas.
Autoedizioa. 2018.

Liburu hau berezia da egilea ere halaxe delako: gizon harrigarria, erauntsi batez idatzitako narrazio soilak pertsonaia xarmangarri, samur bihurtu duena, balentria ia sinestezinetarako gai. Idazlana, baina, ez da, izenburuak iradokitzen duen bezala, lurreko bidaia-liburu bat soilik; bada ere maitasun grinatsu eta zail baten abentura, modu diskretuan tratatua, baina sentikortasunen arteko talka ez-kutatatu gabe.



¿Cómo nos movemos? Aspectos psicosociales de la movilidad sostenible

Askoren artean. Asociación de Estudios Psicosociales y ADECS.
2018.

Liburu honen helburua da ezikusia egin ohi zaien edo txoko batean utzi ohi diren gizarte- eta psikologia-faktoreak nabarmentzea, mugikortasuna ulertzeko erabakigarriak eta egungo hiriko mugikortasun-eredua aldatzeko estrategikoak diren neurrian.



Bizikleta-bideen zoruak diseinatzeko gomendioak

Eusko Jaurlaritzak. 2017.

Eusko Jaurlaritzak gomendio batzuk ondu ditu bizikleta-bideak diseinatu eta horien neurriak zehazteko eta, aldi berean, konponbideak homogeneizatzeko, zoru hauen jokabidearen jarraipena errazteko eta haren diseinuan zein eraikuntzan etengabe hobetzeko.

Sin Cadenas. Guía Expres para aprender a montar en bici y ser más libre

Isabel Porras. Culbuku. 2017.


Genero-ikuspegi nabarmena duen bizikletan ibiltzen ikasteko gida. Bizikleta normalizatzen denean, kaleak bizikletaz betetzen direnean, bizikleta hiriko beste elementu bat denean, agerian geratzen da emakume gehiago doazela bizikletaz.
ConBicik gomendatua.




Bizikleta, norbere mugikortasunerako ibilgailuak eta bi gurpil baino gehiagoko zikloen zirkulazioari buruzko udal ordenantzak koordinatzeko gomendioak

Bartzelonako Metropolialdea. 2018.

Metropolialdeko erakundeak lanean biltzen dituen gomendio gehienak zirkulazio-tokietako bide lehenetsiei eta zirkulaziorako moduari buruzkoak dira. Halaber, deskribatzen ditu seguru gidatzeko eta bide publikoan askotariko garraiobideen arteko errespetua sustatzeko oinarritzko baldintzak.
ConBicik gomendatua.





Ibiltzeko pentsatutako hiriak



Askoren artean. Editorial Pons. 2017.

Gida honek hainbat herrik martxan jarritako ekimen arrakastatsuetan oinarritutako gomendioak eskaintzen ditu, balio baitute plaza eta kaleetako irisgarritasun uni-bertsala, bide-segurtasuna, ingurumena eta bizi-kalitatea hobetzeko; eraldaketa horiek, izan ere, beharrezkoak dira ezin besteko dema bati aurre egiteko: espazio publikoa demokratizatzea.



Viajar en bici. Manual práctico de cicloturismo de alforjas

Alicia Aurrea eta Álvaro Martín. Editorial Desnivel. 2010

Bizikletaz bidaiatzen hasi aurretik gogoan izan behar diren hainbat alderdi esplikatzeko pentsatutako eskuliburua. Zure ibilbidea planifikatzeko era askotako informazioak ematen ditu. Adibidez, ibilbidea nola diseinatu, askotariko bidaia-lagunen arabera kontuan hartu beharreko gauzak, bizikleta nola aukeratu edo prestatu, baita beharrezko ekipamendu mota ere. *ConBicik gomendatua.*



CICLOSFERA#27



Bizikletak negurako dira, eta zenbaki honetan hotzarekin pedalei eragiteaz eta Winter Cycling Congress-ari buruz hitz egiten da; bizikletaz ibiltzearen onura psikologikoen inguruan ere, Espainiako Bide Berdeak aztertzen dira eta Queen-en kantarik txirrindulariarena nola jaio zen edota duela mende bateko feminismoarentzat bizikletak izan zuen garrantzia azaltzen da.



Donostiako Bizikletaren Behatokiaren txostena



Manu González. Donostiako Udala, Kalapie eta Cristina Enea Fundazioa. 2018.

Txostenak Donostiako Bizikletaren Behatokiak 2017an egindako lanak biltzen ditu, adierazleen taula baten bidez, hirian bizikletaren mugikortasunak duen egoera eta bilakaera aurkeztuz, baita sustapenerako eta hobekuntzarako proposamenak ere.



La familia Supertramp: Aventura en Trike: Ámsterdam-París.

Óscar Barreiro, Susana Míguez. Autoeditatua. 2013.

La Familia Supertramp familia ibiltari batek 20 hilabeteko ume batekin triketan bizitako benetako esperientziak kontatzen ditu. Iniziazio-bidaia horretan, familiari ezusteko egoera harrigarrienak gertatuko zaizkio: inor ez du epel utziko. *ConBicik gomendatua.*

BIDEOAK

Ziklotekak bizikleta bidezko mugikortasunari lotutako bideoak ere biltzen ditu bere artxiboetan. Lau garren buletin honetan, ondorengoak bilduko ditugu:

Bizikleta eta oinezkoen arteko elkarbizitza. Txirrinka (Oñatiko bizikletazaleen elkarte).



ALBISTEAK

Guztiok Mugituz Saria

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak Guztiok Mugituz Saria esleitu dio "Gaur nire txanda" ekimenari. Ekimen hori Bizikume eta Kalapie elkarteek bultzatzen dute Gipuzkoako emakumeen artean bizikleta erabilera sustatzeko, Gipuzkoako lurraldean mugikortasun jasangarria, osasungarria eta inklusiboa bultzatzeko helburu estrategikoaz.



Diputatuen Kongresuko Bide Segurtasun eta Mugikortasun Batzordea

Alfonso Sanzen agerraldia, mugikortasun jasangarriko aditua, gai honen berri emateko: trafiko, motor-ibilgailuen zirkulazio eta bide-segurtasunari buruzko legea eraldatzeko proposamena eta hark klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzko lege berriarekin duen lotura.

Bizikletaren Estatuko Plan Estrategikoa (PEEB)

Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak (DGTK) iragarri du Bizikletaren Estatuko Plan Estrategikoaren lehen bertsio bat amaituta egongo dela urtebururako. Plan horrek Espainiako Gobernuaren bide-orria definitzea du helburu, garraio-politika integral eta jasangarri batez bizikletaren erabilera integral eta erakargarria sustatzeko.



Social Biking Challenge

Mugikortasunaren Europar Astearen, Donostiak Social Biking Challenge ekimenean parte hartu zuen Europako beste hainbat hirirekin batera. Europar Batzordeak antolatua eta Bizikletaren Behatokiak hirian koordinatua, ekimenak gizartea mugikortasun jasangarriarekin bat egitea du helburu bizikleta bidezko mugikortasuna sustatuaz. Donostian 100 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten. Tokiko sariak emateaz gain, Donostiako bikote batek bizikleta bana irabazi zuen Europa mailan kilometro gehien egin zuen bikotea izateagatik.



AGENDA

Velo-City

2019ko ekainaren 25etik 28ra Velo-City egingo da Dublinen (Irlanda), hiri barruko ziklismoari buruzko nazioarteko ekintza garrantzitsua.



Hiriko Bizikletaren Topaketa

Martxoaren 4tik 5era, lehendabiziko Hiriko Bizikletaren Topaketa egingo da, Bizikletaren aldeko Hirien Sareak antolatuta. Topaketa horren helburu nagusia da administrazio publikoen eta ekimen eta enpresen arteko sinergien sorrera sustatzea, hirietan bizikleta erabil dadin bultzatzeko. Topaketa egitean, Bikefriendly sariak banatuko dituzte, bizikletaren hiriko erabilera alde erakunde publikoek egingo dako ahalegina aitortzeko.

Zikloteka. Gipuzkoako Bizikletaren Dokumentazio Zentroa
Mandasko Dukearen Pasealekua, 66. 20012 Donostia
943 45 35 26 | zikloteka@donostia.eus | cristinaenea.us/zikloteka

Orduetgia
Astelehenetik larunbatera: 09:30 - 13:30 / 15:00 - 20:00 (neguan 19:00ak arte)
Igande eta jai-egunak: 10:00 - 13:30.

